

AZKEN MEZUA

Hurrengo eguna astelehena zen. Ohera sartzeko zorian nengoen. Ez nuen inoren mezurik espero gau hartan. Mezu baten soinua egin zuen nire mugikorrak. Arraroa zen. Begiratu, eta zenbaki ezezagun bat. Zenbaki oso arraroa gainera. Banekien pantailaren atzean zegoen hori ez zela ezaguna. Nire gurasoak lo zeuden jada. Baina mugikorra desblokeatzean hasi zen guztia. Txatean sartu nintzen.

“Bihar euria egingo du, hartu ezazu aterkia.” - 23.07

Ez nekien nor zen. Ezta zergatik idazten zidan. Nola zekien nor nintzen ni? Ez nion kasurik egin, lehen eta azken mezua izango zelakoan.

Hurrengo goizean, alarmak jo zidan. Guztia egin nuen betiko bezala: ohetik jaiki, ohea egin, ikastolarako jantzi... baina pertsiana igotzean, zerua hodeiek estaltzen zuten, eta bai, sekulako zaparrada egiten zuen goiz horietako bat zen. Momentu hartan ez nintzen jabetu mezuarekin erlazioa zuela. Baina mugikorra piztean. Bart gaueko txat bereko beste mezu bat. Oraingoan, ikastolan gertatuko zitzaidan zerbaitetaz abisatuz.

“Eneritzi, ur-botila zure ikastolako mahaira jauziko zaio” - 07.13

Eneritz nire laguna zen. Ez nuen esaten ez zaiola botila nire mahaira jauziko nire laguna zelako, aldiz, oso arraroa pentsatzen zitzaidan; izan ere, Eneritzek ez zuen inoiz ur-botilarik eramaten ikastolara.

Erabat bustita sartu nintzen ikastolako atetik. Hortxe egin nuen topo Eneritzekin.

– Egunon Julen! – hasi zuen elkarriketa arnasestuka – Korrika etorri behar izan naiz, aze zaparrada, ezta?

– Egunon! Bai-bai, ni ere mela-mela eginda nago. Ikusten dut bai, ia ezin duzu arnastu ere egin. – erantzun nion.

– Arrazoi duzu, baina gaurkoan irtenbide ederra daukat! – esan zuen, motxila zabaltzen hasi zen bitartean.

– Zer duzu, ba? – jakiteko irrikan.

– Ur-botila bat erosi zidan amak atzo, gustatzen? – pozik.

– Mmmm... Bai, bai. – erantzun nion blokeaturik.

Nola zen posible, Eneritz 16 urte botila gabe egotea eta justu, mezua jaso nuen egun berdinean, botila bat estreinatzea. Urduri jartzen hasi nintzen. Inoiz ez dut kointzidentzietan sinistu, beraz hauxe egin nuen, proba bat egiteko: ez nion ezer esango Eneritzi mezuena, ea nire mahaia urez beteta gelditzen zen ikusteko.

Horixe gertatu zen. Beldurra sartu zitzaidan gorputzean. Benetako dar-darak hasi zitzaizkidan. Ez nuen sinisten horrelako gauzarik gertatzea posible zen. Ez nekien nor zen, baina banekien ez zela txantxa bat; izan ere, etorkizuna zekien pertsona zen niri idazten ari zen hori. Ez nuen ezer sinisten, beraz, ez nion blokeatu, ezta denuntziatu ere ez, ea esandako zerbait gehiago gertatzen zen ikusteko.

“Etxera sartzean, atea irekita aurkituko duzu” - 14.01

Horixe gertatu zen. Nire gurasoei deitu. Polizia etorri, eta ez, ez zuten topatu kausarik. Hortxe gelditu zen guztia.

“Badakit zer daukazun zure armairuan gordeta” - 18.43

Nik nekiela, ez nuen ezer ez ezkutatuta nire armairuan. Baina begiratu egin nuen. Eta ez, ez zegoen ezer. Jakinda mezuek esaten zuten guztia ez zela egia, pozik jarri nintzen momentu batez. Beraz, egoera honi aurre egitea erabaki nuen. Nik idatzi nion mezu bat oraingoan.

“Begiratu dut, eta ez dago ezer.” - 18.47

Ez nekien nork, baina segundu gutxi batzuetan erantzun zidan.

“Seguru?” - 18.47

Oso seguru nengoen. Ordea, berriz joan nintzen parean nuen armairua zabaldu eta begiratzera. Lehen kajoia zabaldu. Ezer. Bigarrena zabaldu. Ezer. Hirugarrena zabaldu. Mugikor bat. Ez zena nirea. Pizten saiatu nintzen, baina ez zihoan. Baldurak estali ninduen, eta ez zen lehen aldia. Beraz, behin betiko honekin amaitzeko, mugikorra herriko errekarara botatzea erabaki nuen. Ez nekien ezer, baina hortaz guztiz seguru nengoen. Horixe da egin nuena.

Etxera pozik bueltatu nintzen. Guztia hortxe bukatuko zelakoan. Ez zen horrela izan. Etxera heldu bezain pronto, beste mezu bat.

“Ez duzu ezer lortu egin duzunarekin.” - 19.21

Benetan agobiatzen hasi nintzen oraingoan. Ezinezkoa zen gertatzen ari zena. Ez nuen ezer ulertzen. Ez nekien ezer. Nor zen? Zergatik niri? Nola zuen nire mugikor zenbakia?

Hortxe nengoen, berriz armairua zabaltzen. Oraingoan mugikorra bigarren kajoian aurkitu nuen. Baina pizten zen. Hemen zeuden bidalitako mezu guztiak. Mugikor honetatik bidaltzen ziren guztiak. Mugikorra ondo begiratzen hasi nintzen. Nire pasahitz berdina. Aplikazio berdinak. Fondoan neukan argazkia berbera ere. Mugikorra goitik behera bedina zen.

Berriz mezuak irakurtzen, konturatu nintzen esandako gauza horiek nik bakarrik jakin ahalko nituen gauzak zirela. Nola zekien pertsona batek armairuan daukadana? Beraz, ezinezkoa zen gauza baten pentsatzen hasi nintzen. Baina pentsatu nituen erantzunetatik koherenteena zela ikusi nuen. Ni nintzen mezuak idazten zituen hori. Ni. Baina etorkizuneko ni.

Modu batera edo bestera etorkizunean zerbait gertatuko zen. Mezuak irakurtzen jarraitu nuen, ea beste erantzunik topatzen nuen. Eta justu momentu horretan. Beste mezu bat.

“Ostegun gaua, 03.33, zu, hilda” - 20.34

Hori da (aterrazio) gehien sentitu nuen unea. Txikitatik nion heriotzari beldurra. Gainera, ez nuen nahi 16 urterekin bizitzeari utzi, aldiz, beste alde batetik lasai sentitu nintzen. Nire logikari jarraituz, ni nintzen hori idazten ari nintzena. Eta inor baino hobeto ezagutzen nintzen, beraz, uste dut hori esaten nagoen arrazoia niri babesteko dela.

Hori idatzi duen pertsona, etorkizuneko ni nintzen. Beraz, berak bazekien noiz, nola, eta zer gertatuko zen. Horixe da momentu horretan jakitzea nahi nuena. Idazten hasi nintzen.

“Nola edo nork hilko dit?” - 20.35

Ez zidan inork erantzuten. 10 minutu. Ezer. 15 minutu. Ezer. 30 minutu. Ezer. Ez nuen ezer jaso hurrengo goizerarte.

Aurreko eguna asteazkena izan zen. Hurrengo osteguna, eta mezuak egun horretan hilko naizela zioen. Mugikorra begiratu nuen. Mezu bat zegoen. Begiratu eta eliminaturik zegoela ohartu nintzen. Zer gertatu zen? Txatean 1000 mezu gehiago bidali nituen, erantzun baten bila. Baina ez nuen ezer jaso, gauerarte. Ordurarte oso urduri egon nintzen. Ez nuen erantzunik eta ez nekien zer egin behar nuen egoera ekiditeko. Hainbat aldiz mareatu

nintzen arratsaldean zehar. Buruko minarekin eta izerditan-blai ibili nintzen, erantzun bat itxaroten.

“Ez dakit nork hilko zaituen, baina buruan zulo batekin amaitzen duzu, hil arte” - 22.19

Ez zen espero nuen erantzuna, baina lasaiago sentitzen nintzen. Jakin ahal nuen guztia nekien jada. Plan bat egitea zen falta zitzaidan bakarra. Eneritzi deitu nion, mesedez esaktuz ea berarekin lo egin ahalko nuen gau hartan, arrazoia esan gabe. Berak baietz esan zidan eta pozik jarri nintzen, (destinotik) ihes egin nuelakoan.

Ohean geundela, 03.33-ak arte esna gelditzea zen ideia, guztia ondo (aseguratzeko). Denbora asko pasatu zen. 03.32. Guztiak berdin jarraitzen zuen. 03.33. Ez zen ezer aldatu. Guztia pasatu zela pentsatu nuen. Mugikorraren bibrazio bat. Mezu bat.

“Orain” - 03.33

Hortxe bukatu zen guztia. Nire jaiotza. Infanzia. Ikasketak. Lagunak. Familia. Sentimenduak. Negarrak. Haserreak. Barreak. Baina guztietatik garrantzitsuena, ni eta nire bizitza guztia. Heriotza heldu zen.

Praktikoki ez nuen ezer ikasi honetatik; izan ere, hilda amaitu nuen. Baina, nire begiekin ikusi nuen, gertatzen zena gertatzen zela, egiten nuena egiten nuela, ez zela ezer aldatuko. Ez zela (destinoa) aldatuko. Bai, mugikorra errekarra bota, eta plana egin nuen. Ordea, beti, gertatu beharrekoa, gertatu egiten da. Ez dago zure esku. Edo hori da nire kasuan gertatu zena. Hauxe jakinda, zuk zer egingo zenuke? Egoera ekiditzen saiatu, jakinda berdin-berdin hilda amaituko duzula, edo egoera gertatzera itxaron, momentu bakoitza guztiz aprobetxatuz?